

## FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Enpresa sortzerakoan 3 bazkide izango gara eta kooperatiba-sozietatea sortuko dugu. Honetarako aurreztutako dirua erabiliko dugu eta beharrezkoa bada mailegu bat eskatuko dugu. Jabetza guztiona izango da eta kudeaketa demokratikoki egingo dugu. Bakoitzak funtzio bat izango du. Aitorrek denda fisikoan lan egingo du, Leire, berriz, online denda aurrera eramateaz arduratuko da eta azkenik, Rafak, bezeroekin nahiz hornitzaileekin harremana ona eta argia izatea egingo du. Horrez gain, Rafa eta Leire kamisetak egiteaz arduratuko dira.

Enpresaren funtsezko akordioak gure artekoak izango dira. Bakoitzak funtsezko baliabide bat jarriko du:

- Aitorrek: salmentarako abilezia
- Rafak: komunikazio abilezia
- Leire: webguneak sortzeko gaitasuna.

Horrez gain, hornitzaile onak eta kalitaztekoak izatea oso garrantzitsua da azken produktua ere kalitatezkoa izateko, beraz aliantza onak behar ditugu. Oso garrantzitsua da baita elkarte eta hornitzaile horiek prezio egoki batean saltzea materiala, izan ere, zenbat eta merkeagoa izan kostua orduan eta merkeagoa izango da produktua, kalitatean eraginik izan gabe. Elkarrekin onura handiak eukiko ditugu faktore guztietan elkarrekin lagungarriak badira.

Informatika aditu onak izatea webgunea interesgarria eta erakargarria egitea langunduko digu. Gainera, banakako gure irudimena elkartzean diseinu bereziak egitea ekarriko du.

